




**FRANKEO
ORDAINDUA**
**FRANQUEO
PAGADO**
POSTAK - CARTAS



zaraobe
institutua

64 URTE ESKUALDEAN
47 zenbakia 2017ko ekaina



GURASOAK: ANIMA ZAITEZTE



AURKIBIDEA

Guraso elkarteak.....	2
Zaraobetarrak.....	3
Agenda 21	4
Literatur lehiaketa	6
Internazionalizazioa.....	7
Coca Cola lehiaketa	8
Galtzaberri.....	9
Iparraldeko txangoa.....	10
Korrika.....	12
Ikasbidaia.....	14
Garazi eta Santi.....	16
Victor y Pili	19
Gela egonkorra.....	20
Zurgintza	21
Puntu morea.....	22
Betira arte.....	23
Ohorezko matrikulak.....	23
Txirrindula eguna.....	24

Kaixo GURASOAK:

Ikasturtea amaitu arren, ez dugu nahi zu zoriondu gabe, ezta eskolako komunitatean parte-hartzeagatik eskerrak eman gabe ere denbora pasa dadin, eta oraindik ere ez baduzu parte hartu, datorren kurtsoan parte hartzera animatzen zaitugu.

Nahiz eta gutxi gabela iruditu, ez da horrela. Hezkuntzan interesaturik, zenbait eremutan parte hartzen dugun guraso asko gara: Eskola kontseiluan, Kudeaketa-batzordean, Jantokiko batzordean, Garraioko batzordean, euskalduntzea sustatzean... Baina oso zentro handia izanda, ez dugu elkar ezagutzen. Ez gabela gutxi eta parte hartzeak indartzen gaituela pentsatzea onuragarria da. Beraz, lerro hauetaz baliaturik 2017-18. kurtsoan zu ezagutu nahi zaitugu. Zure interesen artean HEZKUNTZA badago, hemen duzu tokia, zure seme-alabek eta institutu osoak eskertuko dizute.

Hola aitas y amas:

Aunque el curso ha finalizado no queremos que pase más tiempo sin felicitarte y agradecer tu participación en la comunidad escolar de Zaraobe y si aún no te has animado a participar, desde aquí queremos animarte a que lo hagas el próximo curso.

A pesar de que parecemos pocos no lo somos. Somos muchas las madres y padres que interesados por la educación participamos en diferentes ámbitos: consejo escolar, junta de gestión, comisión de comedor, comisión de transporte, fomento de la euskaldunización... pero como este es un centro muy grande no nos conocemos. Saber que no somos pocos, que hay más que piensan que participar nos fortalece es bueno, así que desde estas líneas os animamos a continuar participando y a que os apuntéis el curso 2017-18 a este grupo que formamos las amas y los aitas interesados en la EDUCACION de nuestras hijas e hijos, ellos y ellas, además de todo el centro escolar os lo agradecerán.



Gurasoen Elkarte "BABIO" Asociación Madres / Padres

ZARAOBE BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA
INSTITUTO ENSEÑANZAS SECUNDARIAS ZARAOBE
ampazaraobe@gmail.com
Etxebarrriur, 8 - 01474 AMURRIO (Araba)



ZARA OBETARRAK



Zein da Zaraoberekin duzun lotura?

Duela urte batzuk, batxilergo humanistikoa ikasi nuen Zaraobe Institutuan eta aurten berriz itzuli naiz irakasle-praktikak egitera. Bi hilabete eman ditut bertan eta oso esperientzia polita izan da. Gustura hartu naute (ikasle zein irakasleei, eskerrik asko!) eta ikasten nenbilenean bezalako sentsazioak izan ditut; inoiz joan ez banintz bezala sentitu naiz. Hala ere, oso arraroa izan da "irakaslearen" ikuspuntutik bueltatzea eta irakasle izatea zein zaila den konturatu naiz.

Zer dakarkizu gogora zure ibilbideak Zaraoben?

Batez ere jendea gogoratzen dut. Aresketa Ikastolan ikasi nituen Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta urte horietan zehar jende berbera egon ginen klasean, aldaketa handirik gabe. Denak ginen ezagunak. Baina Zaraobera heldu nintzenean jende berria aurkitu nuen, ikaskide berriak ezagutu nituen, irakasle berriak... Garai horretan ez ginen oso ikasle eredugarriak baina, tira, guk primeran pasatzen genuen behintzat!

Jendeak bere buruarengan jartzen zuen presioa ere etortzen zait burura. Batxilergoa (eta batez ere bigarren urtea) ez dira oso ikasturte atseginak, eta oraindik oroitzen naiz zer-nolako presiopean bizi ziren batzuk unibertsitatera sartu ahal izateko behar zuten nota lortzeko. Nik ez nuen notarik behar eta, beraz, ez nintzen oso larri ibili, baina, alde horretatik, ez dira urte gozoak.

Zein da zure zeregina gaur egun?

Batxilergoa amaitu eta unibertsitatera joan nintzen, lau urtez Gasteizen ibili naiz Euskal Ikasketak ikasten. Unibertsitatea zoragarria da! Jende berri asko ezagutzen da, benetan gustuko duzuna ikasteko aukera

Aurreko urteetan hasitako bideari jarraituz, hona hemen oraingo alean dakarkizueguna: Esti Folgosok Aresketa ikastolan haur hezkuntza eta DBH egindakoan, Zaraobe institutuan ikasizuen batxilergoa. Ondoren Gasteizen egin zituen Euskal Ikasketak, eta, horren ostean, Irakasleen Prestakuntzarako Masterra egiten ibili da aurten. Honekin loturik, praktikak egin ditu Zaraoben eta bertan bizi izandako esperientzia adierazi digu. Zorte on izan dezazula hemendik aurrera!

Esti Folgosa

duzu (behingoz!)... Orain Irakasleen Prestakuntzarako Masterra ikasten ari naiz eta hurrengo hilabeteetan Master Amaierako Lana eta azterketak amaitu bezain pronto titulua eskuratzeko asmoa daukat.

Zer uste duzu dagoela faltan edo soberan hezkuntza sisteman edota Zaraoben bertan?

Hainbeste gauza daude faltan eta soberan hezkuntza sistema honetan... Oso zaila da gauza bakar bat aukeratzea! Hala ere, **nik lehiakortasuna azpimarratuko nuke sistemaren akats larrienetako bat bezala**. Pertsona eta ikasle bezala gure kide eta lagunekin lehiatzera derrigortzen gaituen hezkuntza sistema batean gaude murgilduta eta, nire ustez, kontrakoa beharko luke: **gure artean kooperatzera eta elkarri laguntzera animatzen gaituen sistema bat behar dugu**, gure arteko harremanak sendagoak bihurtzen dituen, eta ez ahulago. Ekoizpen ekonomikoari begiratzen dion hezkuntza sistema bat dela uste dut, ahalik eta gehien ekoizten duten makinak bihurtzera bultzatzen gaituena. Horrek geure artean lehiatzera bultzatzen gaitu eta hori ez da osasuntsua. Pertsona guztiak ezberdinak gara, denok ezin dugu erritmo berean ikasi eta ezinezkoa da maila bakoitzeko legezko eduki guztiak barneratzea.

Eta zuk esan nahi duzuna...

Bizi ahal bezain ondo. Ez dut esan nahi ez ikasteko edo lanik ez egiteko, baizik eta bizitza ahal bezainbeste aprobetxatzeko. Bizitzako aro edo momentu bakoitzak bere zailtasunak ditu, baina unetxo horiek ere bizi behar dira. Nahiz eta askotan gure burua itota ikusi, bizitzak bizitza merezi du!

AGENDA 21

INSTITUTUA, GURE EGUNEROKO PAISAIA

“... podemos decir que el instituto Zaraobe es nuestro paisaje cotidiano, y este curso hemos hecho una valoración de ese paisaje,...!”

Aurten Agenda 21eko gaia “Paisaia” izan da. Hiztegi batean kontsultatzen badugu paisaiaren definizioa honako hau izan daiteke: “Ingurura begiratzen dugunean, ikusten dugun guztia da paisaia”. Definizio hau abiapuntu bezala hartuta, Zaraobe institutua gure eguneroko paisaia dela esan dezakegu, eta aurten paisaia horren balorazioa egin dugu, baina ez gara horretan geratu, Institutuko instalazioak hobetzeko proposamenak luzatu dizkiogu zuzendaritzari.

Nola egin dugu hau guztia? Hasteko DBHko gela guztietan galdetegi bat bete genuen. Han instalazio bakoitzari puntuazioa jarri genion 0tik 5etara, 0 zenbakiak instalazio horren egoera oso txarra zela eta, 5 zenbakiak egoera ezinhobea zela adierazten zuten.

Gainera, aipatu dugun bezala, **instalazio bakoitzerako hobetzeko proposamenak eta konpromisoak pentsatu genituen.**

Bigarren urratsa gela guztien informazioa jaso eta datu guztiak bateratzea izan zen. Hori lortuz gero, powerpointa egin genuen.

Agenda 21eko ordezkari batzuek powerpointa DBHko gela guztietan aurkeztu zuten, modu horretan ikasle guztiek datu bilketa ikusteko aukera izan zuten.

Irakasleei begira, powerpointa zuzendaritzari aurkeztu genion, eta, geroztik, klaustro batean ezagutarazi zuten. Zuzendaritzak jasotako ideia batzuk martxan jarraituko ditu hurrengo kurtsoan.

Bukatzeko, hona hemen, instalazio baten balorazioa, gehiago jakin nahi baduzue kontsultatu institutuko web orrialdea.

Gelak

Gure nota



● 3,92 / 5

GELAK HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Proposamen indibidualak



- Gelak ez zikintzea. Paperak lurrera ez botatzea.
- Altzairuak ondo zaintzea.
- Mahaiak ez margotzea.
- Klasean ez jatea.

Guztion artean hobetzeko proposamenak



- Mahaiak eta aulkiak berdintzea. Mahaiak eta aulkiak erosoago izatea.
- Gela batzuetan kortxoa aldatzea.
- Sintonia aldatzea.
- Tenperatura hobeto kontrolatzea. 1. zikloan tenperatura jaistea.
- Hormak margotzea kolore desberdinekin.
- Klaseko ateak konpontzea, oso erraz zabaltzen dira eta.
- Pertxero gehiago ipintzea.
- Usaina hobetzeko zerbait jartzea.

LITERATURA LEHIAKETA



Aurreko maiatzaren 11n, Gaztelania eta Euskara departamentuok AMPA Guraso Elkartearen diru laguntzarekin, urtero antolatzen duten Literatura Lehiaketaren XXII. edizioari dagokion sari banaketa ospatu genuen Areto nagusian.

Oraingo honetan 26 lan aurkeztu dituzte lehiaketara, guztiak estilo desberdinetakoak: abentura narrazioak, poliziakoak, maitasuna lantzen dutenak, kritika soziala,... Ohikoa den moduan, hitz-laua edo prosa nagusitu da olerkiaren gainetik, eta DBHko parte hartzea handiagoa izan da Batxilergokoarekin konparatuta, azken hauei ikasturte amaierako zamak denbora gutxi uzten die eta (honen adibide argia, Haizea Ganzedok idatzitako Bachillerato izenburu duen narrazioa da, oso irakurketa gomendagarria sortarazten duen gogoetarik).

IKASTURTEKO HONETAKO IRABAZLEAK HAUEXEK DIRA:

OBRAS GANADORAS CASTELLANO

1^{ER} CICLO:

- **POESÍA:** ASIER FANDIÑO. "*Policromías negras*"
ACCÉSIT: Beatriz Rodríguez. "*Apóyame*"
- **PROSA:** SAIOA ALDAY. "*El crimen*"
ACCÉSIT: Andoni Vázquez. "*Zara*"

2º CICLO:

- **POESÍA:** SARAI FERREIRA. "*Cobarde*"
- **PROSA:** SANDRA CASTAÑO
"*La decisión de Indiana*"
ACCÉSIT: Ane Campo. "*Mi sueño*"

BACHILLERATO:

- **POESÍA: EX AEQUO:** UNAI VELARDE "*Rue de L'Alouette*"
MIKEL GÓMEZ "*Mi vida sobre ruedas*"
- **PROSA:** HAIZEA GANZEDO "*Bachillerato*".
ACCÉSIT: Irati Rojano. "*Tierra, trágame*"

LAN SARIDUNAK EUSKARAZ

2.ZIKLOA:

- **OLERKIA:** IKER MENOYO "*Ilargia*"
ANE CAMPO "*Gerra*"

BATXILERGOA:

- **PROSA:** ANDER SAÉNZ DE LA FUENTE
"*Bihotzen ilunpea*"
IRATI ROJANO "*Peter Panen agurra*"

Institutuko web orrialdean sartuz gero, lan sarituez goatzeko aukera izango duzue.

26 lan aurkeztu
dituzte lehiaketara,
estilo desberdinekoak

INTERNAZIONALIZAZIOA

NARBONA

Orain dela lau urte, Zaraobe Institutuko irakasle batzuk Narbonako institutuarekin harremanetan jarri ziren, eta lan ikastaro bat ematera joan ziren bertara. **Narbona**, Mediterraneoko kostaldetik gertu dagoen hiriburua da, eta bertako herrialde osoko ikasleak hartzen ditu.



Kontuan izanda ikasle askok kilometro larregi egin behar zutela zentrorra heltzeko, 2016-2017 ikasturtean Lezignan-Courbièresen Bigarren Hezkuntzako Institutu berri bat zabaldu zen herrialde osoko ikasleak hartzeko asmoarekin. Aurton, Arreta SOZIO-SANITARIOKO irakasle batek bertan Job-Shadowing bat (aste beteko egonaldia) egiteko aukera izan du eta esperientzia ezin aberasgarriagoa izan da. Alde batetik, **eraikuntza bera eta instalazioak azken teknologiekin prestatuta daude, espazio zabalak eta modernoak, bai gelak, kantina bazkaltzeko eta ikasleentzako egoitza**. Beste alde batetik, antolakuntza sistema erabat ezberdina da. Adibidez, erizaintza departamentu bat dago zentro barruan, eta Bizitza Eskolarra koordinatzeko hamar lankidek osatutako talde bat dago (haiek akademikoa ez den guztiaz arduratzen dira: eskola arazoak, hutsegiteak, familiekiko harremanak, egoitza. Momentuz, laurehun ikasleri ematen dio zerbitzua, baina mila baino gehiago izango dira urte gutxi barru.



Institutu berrian bost batxilergo mota daude: Literarioa, Gizarte-ekonomikoa, Zientifikoa, Kudeaketarako Zientzi Teknikoak eta Teknologikoa. Zaraobe institutuan bezala, bertan Oinarrizko Lanbide Heziketa ere badaukate: Operadore Logistikoa egiteko, edo Automoziorako Pieza Saltzailea izateko. Gurean bezala, heziketa Zikloak ere badaude: Pertsonarentzat laguntza, Zainketa eta Zerbitzuak, Merkataritza, Merkantziak Garraiatzeko Gidaria, Garraioa eta Logistika.



Frantziako bizimodua eta gurea apur bat ezberdina da, normalean klaseak goizeko zortzietan hasten dira eta arratsaldeko bostetan amaitzen dira. Ikasleak bi ordu daukate bazkaltzeko eta, normalean, Kantinan jaten dute, prezioak nahiko merkeak izaten dira eta. Garraio publikoaren maiztasuna nahiko eskasa denez, ikasle asko egoitzan gelditzen da astelehenetik ostiralera. Etxera doazenak, berandu heltzen dira eta afalordua zazpitan egiten dute gutxi gora bera, normalean gurean baino goizago oheratzen dira.

Datorren ikasturtean, kirol zentroa zabaltzeko asmoa daukate, eta, horrela, ikasleak lizeotik ateratzen direnean, kirola egiteko aukera izango dute institutuan bertan.

Ikasle gehienek gaztelania ikasten dute aukerako gaitzat hartuta, eta 2018-2019 ikasturtean gura etorriko dira enpresetara praktikak egitera. Gure ikasleak ere bertara joango dira nazioarteko mugikortasuna sustatzeko asmoarekin, Erasmus Programaren barnean. Esperientzia ederra izaten da ikasleentzat, beste kultura batzuetako ohiturak ikasten dituztelako, eta lan egiteko modu desberdinak ikusteko aukera delako.

Egia esan, frantsesak anfitrioi bikainak izan dira guretzat, orain geure esku dago haien harrera.



La vida en Francia es algo diferente a la nuestra, las clases comienzan, normalmente, a las ocho de la mañana y terminan a las cinco de la tarde, y para comer utilizan la Cantina, por su precio asequible.

COCA COLAren

TALENTU GAZTEEN LEHIAKETA (NARRAZIO LABURRA)



Aurten, lehenengoz, ZAROBEBHIK 16 urtez beherako DBHko 2. mailako ikasleei zuzenduriko **“narrazio laburren talentu gazteen lehiaketan”** parte hartu du.

Lehiaketa honetan Euskal Herriko 196 ikastetxek parte hartu du. Araban gure ikasle Amaia Berganza geratu da finalista. Aldez aurretik, DBHko 2. mailako ikasle guztiekin narrazioa sakon landu dute gelan. Ondoren, idatzitako narraziorik onenak aukeratu genituen, eta gela bakoitzeko bi hartu genituen Arabako proba orokorrean aurkezteko.

Martxoaren hasieran, Gasteizko Europa Jauregian, gainontzeko parte hartzaile guztiekin batera, geure ordezkariak –oso urduri zeudela– bi orrialdeko idazki batean euren trebetasun literarioak erakutsi zituzten. **Idazlana egiteko eman zieten esaldi honetan oinarritu behar ziren: “Hauxe da gogoratuko duzun bakarra”.**

Oraingo honetan epaimahaia ikastetxearekin harremanetan jarri zen berri on-ona emateko: Amaia, gure DBHko 2. G taldeko ikaskidea, 57. edizioko finalistetako bat zela.

Emandako saria jasotzeko irabazlea, bere familia eta irakaslea deitu zituzten Iruñako Baluartan ospatu zen ekitaldian. Bertan, ekainaren 8an, sariak banatu ziren eta Euskal Herriko lehen sailkatuak aukeratu ziren. Amaiak hirugarren postu ederra lortu zuen.

Zorionak Amaia zure ahalegina eta lanagatik! Zure eredu adibidea izan dadila besteontzat, eta izan ditzagula laster gauza atseginak eta interesgarriak irakurtzeko.



Para la redación tuvieron que basarse en la frase prescrita: **“esto es lo único que recordarás”.**

GALTZABERRI

SARI BANAKETA EKITALDI
JENDETSUA TABAKALERAN



KALTE GABEKO JOKOAK
(Ibaizabal, 2015) liburuari buruzko
lanarekin irabazi du.

Galtzagorri
elkartea



Guztira, **bost sari** banatu dira. Ikastetxeen kategorian, bi multzo egin dute eta multzo bakoitzeko sari bana eman da: DBH1-2 multzoan bat, eta bestea DBH3-4 multzoan. Norbanakoen kategorian, berriz, maila guztiak zaku berean sartu dira eta sari bakarra eman dugu, book trailerrik onenarentzat. Ondoren, Publikoaren Sariak banatu dituzte. Horiek boto bidez erabaki ditu publiko zabalak: sari bana eman da kategoria bakoitzeko (Ikastetxeak eta Norbanakoak).

Sari nagusiaren irabazleak ekitaldian bertan jakinarazi dira eta **200 lagunetik** gora -lehiaketan esku hartu duten gazteak, gehienak- izan dira Tabakalerako zinema-aretoa bete dutenak. Ekitaldia Idoia Noble itzultzaile, interpretari eta aurkezleak gidatu du.

Sari nagusiak

Norbanakoen kategorian Yeray Gomara gaztearentzat izan da saria. Kalte gabeko jokoak (Ibaizabal, 2015) liburuari buruzko lanarekin irabazi du. Epaimahaiaren aburuz, oso kalitate oneko lana da. Irudien aukeraketa ona da eta muntaia ere bai. Oso ondo planteatutako book trailerra da eta amaiera pizgarria du. Saria Ane Rodriguezek, Tabakalerako Kultura zuzendariak, eman dio amurriarrari.

Zorionak Yeray! Segi bide honetatik eta datozen urteetan errepika daitezela honelako sariak.

PARRALDEKO TXANGOIA

FRANTSESEZ MURGILTZEN

Aste Santua hasi bezain pronto gure ikastetxean frantsesa ikasten duten batxilergoko ikasleek, bi irakasleekin batera, Bordelen, Arcachoneko Dune du Pilaten, Saint-Émilionen eta Biarritzen, galoen hizkuntza praktikatzeko aukera ederra izan zuten. Halaber, ikasketa bidaia guztietan bezala, elkarkidetzan ere murgildu ginen eta harremanak sendotzeko aukera oso polita izan zen, 3 egunetan klasean ikasitakoa praktikan ipintzeko. **Esperientzia oso ona izan zen eta ikasleek pentsatzen zutena baino askoz gehiago ulertzen eta mintzatzen ziren.**

DBHko frantsesa ikasten duten ikasleek ere antzeko aukera izan zuten maiatzean, Biarritzeko egun bateko txangoa egin zuten.

Miren Viteri

FRANTSESEZ MURGILTZEN

Au début de la Semaine Sainte, je suis partie avec Miren en France avec le groupe de français de la première et deuxième année de Bachiller de notre collège. On a visité Bordeaux, Saint-Émilion, la Dune du Pilat et Biarritz.

L'objectif était clair : pratiquer la langue dans un contexte réel pour comprendre le français comme un moyen de communication efficace. Mais, comme dans tous les voyages d'études, on a eu aussi l'occasion de s'approcher les uns des autres et de cohabiter pendant trois jours. Cela a été une jolie expérience et les élèves se sont rendu compte qu'ils comprennent et peuvent communiquer plus qu'ils ne le pensaient.

En mai, les élèves de la deuxième et troisième année de l'Éducation Secondaire Obligatoire auront aussi l'occasion de pratiquer la langue en France, à Biarritz.

Lidia Santamaría

EKINTZAK

BORDELEN hurrengo leku hauek bisitatu genituen : Garona, Place de la Bourse, turismo bulegoa, Quinconces plaza, le Grand Théâtre, Sainte-Cathérine kalea, Pey-Berland Dorrea, Saint-André eliza, udaletxea, Victoire plaza, Kanpai handia, Saint-Pierre auzoa.



VEenez APPRENDRE LE FRANÇAIS!!

ANIMA ZAITEZTE FRANTSESA EGITEN!!

SAINT-ÉMILION Erdi Aroko herria bisitatu genuen turismo bulegoan hartutako mapekin, soto bat bisitatu genuen eta Erregearen Dorretik herriko bistak disfrutatu genituen. Saint-Émilion, vu de la Tour du Roi.



Museoa eta gero, Clemenceau plazara jaitsi ginen eta denbora libre izan genuen Miramar hondartzatik paseo bat emateko eta jateko.



Jan eta gero, plazan bildu ginen eta hondartza ertzetik portu zaharreraino ibili ginen.

DUNE DU PILAT: Europako dunarik handienean egon ginen, goraino eskaileretatik igo eta hareatik korrika jaitsi.



Quatre élèves escaladent la dune

BIARRITZ: farora iritsi ginen eta Miramar hondartzatik portu zaharrera iritsi ginen, Arroako birjina bisitatzeko. Le Rocher de la Vierge

FRANTSESEZ MURGILTZEN II

Maiatzaren 23an, DBHko 2. eta 3. mailako frantsesa egiten duten ikasleekin Biarritzera joan ginen Beatriz eta biok. Oso esperientzia polita izan zen:

Farora ailegatu bezain laster, Grande hondartzatik jaitsi eta Txokolate Museoraino joan ginen oinez, Biarritzeko arkitektura polita ikusiz. Museoan, txokolatzeko piruleta bat egin eta txokolatea nondik datorren eta nola egiten den ikasi genuen.



Eskailera estu batzuetatik igo, tunel baten azpitik pasa, eta Arroako Birjinara ailegatu ginen. Bertan argazki batzuk atera genituen, bistak aprobetxatuz.



Bisita amaitzeko, Aquariuma bisitatu genuen mota guztietako arrainak ikusteko. Bostetan, Aquariumeko goiko partean, itsas txakurrak (fokak) ikustera joan ginen. Haien jateko ordua zen, eta zaintzailearen azalpenak entzun genituen frantsesez. Fokak aurkeztu zituen, deskribatu, eta ariketa batzuk egin zituen, jateko ematen zien bitartean.


Aquarium osoa ikusi eta gero, autobusa hartzera joan ginen eta Amurriora bueltatu ginen.

Lidia Santamaría

ZARAOBE



KORRIKA- REKIN BAT



IKASBIDAIA

KATALUNIARA



Ikasturte honetan ere DBHko 4. mailako ikasleok Kataluniarako ikasbidaia egin dugu. Arlo desberdinetako bisitaldi eta ekimenak proposatuta zeuden eta oso aberasgarria izan da guztiontzat.

Figueresen Dalí genioaren museoa bisitatu genuen, eta Gironako alde zaharreko ibilaldi gidatua egin.

Bartzelonan alde batetik Montjuïc eta Ramblako behealdetik hasita erdialdean zehar ibiltzeko parada izan genuen. Horrez gain, beste egun batean, Zientziaren museoa, Gaudíren Sagrada Familia eta auzo gotikoa eta hiriaren alde ezagunenak ikusi genituen.

Ikasbidaiairen hirugarren zatiak hegoalderantz eramán gintuen, eta Salou-Cambrils aldean kokatu. Hor aisialdiarekin lotutako gure gustuko ekimenak egin ahal izan ditugu, direla ur-jokoak direla Port Aventura, eta abar.

Saiatu gara bidaide izan ditugun irakasleei eta gidariari buruhauste handiegirik ez eragiten, eta bueltan balorazio gisa, bizitzarako esperientzia polita eta ikasle askok esan dugun bezala oso ondo pasatzeaz gain, asko ikasi eta pertsona desberdin eta helduago etorri gara bidaiatik.

Teníamos
programadas
diferentes visitas y
actividades. Ha sido
una experiencia muy
enriquecedora para
todos-as



Exchange students
in Chicago

GARAZI ETA SANTI

AMANCIO ORTEGA fundazioak eskaintzen dituen bekei esker, Garazi Elejaldek eta Santi Iturbe urtebete eman dute EEBB eta Kanadan, hurrenez hurren. Bertan Batxilergoko 1. mailaren baliokide diren ikasketak egin dituzte eta, orain, ikasturtea amaitzear dagoela eta datorren ikasturtean berriro gurekin egon aurretik euren inpresioa, iritzia, gogoetak,... konpartitu nahi dituzte gurekin guztiokin.

Garazi Elejalde

My experience in the USA

Ezin dut sinetsi urte hau amaitzear dagoenik, harrigarria da denbora ze arin pasatzen den.

Heldu aurretik uste nuen nire ingelesa hobetzea edo beste herrialde bateko kultura ezagutzea zirela helburu nagusiak, baina oso oker nongoen. Estatu Batuetan bizitzeak gauza askoz gehiago irakatsi dit, bizitzaz, jendearekiko harremanez eta, batez ere, neure buruaz. Esperientzia honek asko aldatu nau eta harro nago esateaz ez naizela heldu zen pertsona bera. Estatu Batuetara etortzea bigarren bizitza bat bizitzea bezalakoa izan da, hutsetik hasi dudana bizitza. Beste eskola, familia, lagun, kultura... batera ohitzea ez da beti erraza izan, baina esperientzia guztietatik ikasi dut, eta ez nuke momentu bat bera ere aldatuko.

16 urtetan bizitako bizitza atzean uztea ez zen erraza izan, batez ere familia eta lagunei hain lotuta egonda. Baina goizago edo beranduago gertatu behar den zerbait da, eta azkenean, guztiok ikasteko balio izan duen esperientzia izan da hau. Eta orain, hamar hilabetetan zehar bizi izandakoa betirako atzean utziko dudala pentsatzeak oso triste jartzen nau.

Sinestezina da denbora labur honetan harreman hain estuak lortu ahal izatea. Hemengo bizitza atzean utzi behar dudana arren, hemen ezagututako jendeak beti izango du lekutxo bat nire bihotzean, eta badakit nire bihotzaren zati bat ere hemen geratuko dela, Hollanden. Nire lagun minenak eta hemengo familiak badakite hau ez dela agur bat, gero arte bat baizik, eta egunen batean berriro elkartuko garela.

Urtebetez etxetik urrun pasatzeak gauza asko irakatsi dit: bizitzan garrantzitsuena ez dela zer gertatzen den, baizik gertatzen den horrekiko zure jarrera zein den, arazoei aurre egiteko modu bat baino gehiago dagoela, dena ez dela zuria edo beltza eta bizitza irribarre batekin politagoa dela.

So, I totally recommend being an exchange student at least once in your lifetime, it's going to make you grow, learn and it is also going to encourage you to be a better person every day. This year has definitely been a year to remember, and all the great memories and the special people I shared them with will forever remain in my heart.

Thank you,

Mississippi

Santi Iturbe

Nire bizitza Kanadan:

laz beka bat ateratzeak aurten Batxilergoko 1. maila Kanadako institutu batean egiteko aukera eskaini zidan. Esperientzia paregabea izaten ari da, eta, horregatik, zuekin partekatu nahi dut.


Kanada oso herrialde zabala da, eta niri Manitoba probintzia egokitu zitzaidan. Manitobaren hiriburua Winnipeg da. Eta horixe da bizi naizen hiria. Han familia batekin bizi naiz eta alde horretako institutuan ikasten ari naiz.

Badaramatzat zortzi hilabete eta denbora arinegi pasatzen ari da. **Nire familia eta lagunak faltan botatzen ditut, bai, baina hemen ezagutu dudak jendea ere alde egitean faltan botako dut.** Hona etorri baino lehen bidaiaren helburu nagusia nire ingelesa hobetzea zelakoan nongoen, baina konturatu naiz hori ez dela garrantzitsua.

Nire lehenengo hilabeteak hemen guztiz nekagarriak izan ziren: une oro nire atentzioaren ehuneko ehuna jarri behar nuen gertatzen ari zen guztia ulertu eta lagun berriak egin ahal izateko, beraien konfort-aldetik nahitaez ateratzeko prest egoten ez zirenak. Baina denbora hori pasa ondoren, gero eta erosoago sentitzen hasi nintzen. Zeraoban nengoela, nire lagunekin egotera eta erronkarik ez proposatzera ohituta nongoen, besterik ez. Atzerriko herrialde batera joan behar izateak (non nirearen desberdina den hizkuntzaz hitz egiten duten) eta kultura desberdin bateko jendearengan integratu behar izateak aldatu nau: nire erosotasunetik atera eta lagun berriak egiteko ahalegin handia egin behar izan dudalako.

Nire Canadiako familiari dagokionez, eskuzabalki hartu nau eta sarritan gogorarazten dit alde egitean faltan botako nautela. Nik etxerako lanetan laguntzen dut, txakurrez arduratzen naiz, elurra kentzeaz... Haiekin nire etxean bezala sentitzen naiz. Beraien familia-egoera guztietan integratzen naute. Egia esan, zorte handia izan dut.

Kanadan joaten naizen institutuak ez du Zeraoberen antzik. Goizean 65 minutuko bi saio ditugu, 65 minutuko bazkalordua eta arratsaldean beste 65 minutuko bi saio. Gure ordutegia eta saio bakoitzean ikasi nahi duguna aukeratu ahal dugu; gainera, ikasturtez pasatzeko behar ditugun irakasgai guztiak izatekotan (hau da, lehenengo sei hilabetean irakasgai asko aukeratzekotan), bigarrenetan saioen batean irakasgaiak ez egiteko aukera daukagu, eta horrela denbora libre gehiago izateko. Horrekin esan nahi dut hemen institutua askoz lasaiagoa dela. Nik, adibidez, hirugarren saioa libre dut eta geroago bazkalordua (lunch), eta horregatik goizean bi ordu libre baino gehiago ditut. Gainera, arloak ez dira gure herrialdean diren hain akademikoak. Nire kasuan, adibidez, curriculumaren



Chicago



“Recomiendo a cualquiera que esté preparado para permanecer un largo periodo lejos de su familia que busque la manera de llevarlo a cabo. Ésta no es una experiencia educativa que acaba siendo aburrida, sino que te aporta muchas vivencias positivas y divertidas...”

barruan, Musikako banda edo Kirolak irakasgaiak aukeratu ahal izan ditut. Horrek Institutuaren barruan musika-tresna batzuk jotzen ikasteko aukera eman dit, baita nire bandarekin Chicagorako bidaia bat egitea ere.

Institutuak kirol guztietako taldeak antolatzen ditu, eta, horregatik, kirola egin nahi izatekotan ez zara apuntatu behar klub pribatutan, Amurrión bezala. Baditugu kirol-mota askotako taldeak: hockey, lacrosse, futbol, beisbol, txirlak, frisbee, atletismo, badminton, boleibol, saskibaloia... Taldean aukeratua izateko probetara aurkeztu behar zara, besterik ez. Ni futboleko eta atletismoko taldeetan nago, baina bi kirol hauek oraindik hasi gabe zeudenean institutuko gimnasia joan ohi nintzen.

Espero nuen baino denbora gehiago kostatu egin zait, baina azkenean neure burua hemengo parte sentitzen dut. Kanadako lagun berriekin aurrerago harremanetan jartzen lortzea gustatuko litzaidake, Espainiako eta Mexikoko jendearekin hainbeste harreman izatearen orde (nahiz eta oraindik nire lagunak izan eta haiekin geratzen jarraitu). Hala ere, sentitzen dut, azkenik, lortu dudala institutuan sartzea eta jendea nirekin gustura sentitzea.

Denbora luze batean familiatik urrun egoteko prest dagoenari egitea gomendatzen diot. Azkenean aspergarri izaten bihurtzen den hezkuntza-esperientzia ez da, baizik eta bizipen baikor eta dibertigarri asko ematen dizkizuna, bizitza osoan nostalgiaz gogoratuko duzuna. Herrialde desberdinetako neska-mutilek dituzten harremanetarako moduei buruz ikasteak oso interesgarri gertatu zait, Kanadaz gain, mundu osoko jendearekin ere harremanak izateko aukera izan dut-eta (Brasil, Eslovakia, Mexiko, USA, Belgika, Alemania, Vietnam, Tailandia, Txina...).



VÍCTOR Y PILI



Víctor y Pili han sido una pareja estable. Un tándem eficaz y eficiente. Pili secretaria del centro desde 1998 ha realizado tareas administrativas tanto en el ámbito de la formación reglada como en la formación para el empleo. Víctor es profesor de Zaraobe, en Mecanizado y mantenimiento de Máquinas desde 1998, y estos últimos años ha desarrollado tareas directivas, tanto en el departamento de Calidad como también en la formación para el empleo.

La gestión de todos los cursos que el centro ofrece para trabajadoras/es y desempleadas/os ha sido el nexo de unión de estos dos vecinos/as de Orduña.

Un área delicada, en la que se maneja mucha documentación, y en la que es necesario contar con personas profesionales y comprometidas con el centro; y ese ha sido el caso de Pili y de Víctor. **Han desarrollado durante años un trabajo minucioso que ha posibilitado que hoy por hoy Zaraobe sea referente comarcal en la formación para el empleo.**

El Instituto Zaraobe sólo puede tener palabras de agradecimiento para ambos y el deseo de que el futuro solo les deparé felicidad. Hasta la vista!

Urduñako biztanle bi hauen lotura ikastetxeak eskaintzen dituen langile eta langabeentzako ikastaroen kudeaketa izan da



Tel. 945 393 000

www.zaraobe.net



GELA EGONKORRA



Ikasturte honetan Institutuko Gela Egonkorreko irakasleek eta Mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Arreta Sozio-Sanitarioko Departamentuko irakasleek, proiektu ezberdinak antolatu dituzte elkarrekin. Arretako bigarren mailako ikasleek Aisialdirako tailerrak prestatu dituzte Gela Egonkorreko ikasleekin batera: Psikomotrizitatea, Erlaxazioa eta Kirol Ekintzetako arloetan. Tailerrak, institutuko gimnasioan egin dira.

Bigarren mailako ikasleek eguneroko ekintzetan oinarritutako tailerrak garatu dituzte Zikloko Sukaldean. **Esperientzia positiboa eta aberasgarria izan da,** eta espero dugu datozen urteetan ere elkarlanean jarraituko dugula.



ZURGINTZA



Aurten Zaraobeko Oinarrizko Lanbide Heziketako (OLH) ikasleek, Mikel Iturraspe eta Iñigo Herrero irakasleen laguntzarekin, hainbat lan potolo burutu dituzte.

Ikasturtea hasi zenean, ikasleek ez zeukaten zurgintzaren inguruko ezagutzarik. **Hasieran eskuko tresnak erabiltzen ikasi zuten, eta kurtsoak aurrera egin ahala makinak ezagutuz joan dira, eta ondo ezagutu ere.** Horren lekuko dira, argazkietan ikusten dena. Alde batetik, Zaraobeko ikastetxearen kanpo aldean jarritako hiru mahai, ikasleen atsedenerako jarriak. Beste alde batetik, tailerraren barruan egindako berrantolaketa eta beste hainbat lan.

Zorionak guztioi egindako lanagatik!



PUNTU MOREA

Ikasturteari jarraipena emanez, Hezkidetza batzordeak lanean jarraitu du azken egunera arte. Horretarako, orain arte aritu garen moduan, programatutako ekintzak burutu ditugu:

Martxoaren 8aren inguruan, aste santuko oporrak arte gurekin egondako musikako irakasle **Sofia Santos Pardiñasek**, bere ikasleekin **EMAKUMEAK MUSIKAREN HISTORIAN** izan duen eraginaren inguruko lan oso interesgarria prestatu zuen. Muralak eskegita egon ziren ikastetxeko sarrera nagusiko hormetan. Lan bikaina gure ikasleek egindakoa Sofiaren ezinbesteko laguntzarekin!!!!

ARGAZKI / BIDEOA



Honekin batera, batxilergoko 2. mailako neska-mutlak **Olga Artiñano** sokatiran eta **Maria Sánchez** eskupilotako epaile aritzen diren bi emakume hauen esperientzia ezagutzera gonbidatu genituen. Behin hitzaldia bukatuta, ikasleek

beraien galdera eta iritzien bidez, eztabaida parte-hartzailea sortu zuten, hausnarketa egiteko gaia bilakatu zelarik.



DBHko 4. mailako ikasleek **Eli Pinedo**, eskubaloijokalaria ohiaren hitzaldiaz gozatu zuten, Amurrioko antzokian martxoaren 6an.

Baina dena ez da ikasleen formakuntza, trebatzea....

soilik zuzendua izan, ez!!! Irakasleontzat ere izan dugu. AZ participación enpresaren bidez, 3 saiotan zehar, **BIZIKIDETASUNA HOBETZEN BERDINTASUNETIK** izeneko tailerra garatu dugu: indarkeriaren inguruan eta hau gertatzearen arrazoiei buruz gogoeta egitea izan du helburu nagusi; bide batez ere, indarkeria identifikatzeko eta saihesteko tresnak eta proposamenak planteatzeko gaitasuna landu dugu.

Hau guztia lantzeko, garatu ditugun edukiak honako hauek dira:

- Sexu-genero sistema: zer da emakume eta gizon izatea gaur egun.
- Identitate perstonalak: Nola iristen gara gaur egun garena izatera.
- Definizioak.
- Belaunaldiz belaunaldi helarazten dizkiguten elementu kulturalak.
- Mitoak eta sineskizunak.

Hasieratik bukaeraraino tailer parte-hartzailea izan da.



2017-2018 ikasturterako erronka hauekin eta berriekin jarraituko dugu, horretarako zuen partaidetza kontuan izatea gustatuko litzaiguke (guraso eta ikasle); beraz, anima zaitezte gurekin harremanetan jartzera gure neska-mutilen hezkuntza eremu honetan bat egin dezagun!!!!

BETIRA ARTE



Aurtengo ikasturte amaieran, urtero bezala, hainbat lankideri agur edo gero arte esateko ordua heldu da. Urte luze gurekin batera lan egin ostean, eta, batzuetan, oso garrantzitsuak diren beste zenbait arduratan ere ibili ostean, beste ikastetxe batzuk ezagutzera joango zaizkigu. Zaudeten lekuetan zaudetela, onena opa dizuegu. **Faltan botako zaituztegu: Jose Vidaurrezaga, Javi Ormazabal, Marije Quintela, Martín Amarike, Karmele Barturen, eta argazkian ez dauden Pedro Gómez eta Gorka Belasko.**

OHOREZKO MATRIKULAK

2016 - 2017 Ikasturtean Ohorezko Matrikula lortu duten ikasleak hauexek izan dira: **Asier Elorza, Paula García eta Jon Intxausti.**

Zorionak
bihotz-
bihotzez!!!



TXIKINDULA EGUNA

